

infraganti SAVANNA STUDIOA

Arrate Rodriguez eta Carlos Ndungmandum daude Savanna studioaren atzean. Errenteriarra da Rodriguez eta Vigo du sorteria Ndungmandumek, biek, baina, Hendaian, Kantauri itsasoa bistaratzten den etxean eta lantokian egin dute kabia. Ilustratzailea da lehena, diseinatzailea, bigarrena. Sormena hil ala bizkoa da bientzat.

Estudioaren barrunbean artista bakoitzaren lan txokoa aurkitu dugu. Ordenagailu finko eta handia gailentzen da Carlosen aldean, entzungailu beltzak zintzilik dituela. Ez da beste ezer ageri ordena perfektu eta geometriko horretan. Parean, Arrateren ordenagailu eramangarria, koloretako pinturaz betetako potea ondoan, bai eta hamaika zirriborro ere mahai azpian, ezkuta ezinik.

Diseinatzailea da Carlos. Ilustratzailea, aldiz, Arrate. 2012 urtetik partekatzen dute lantokia. Nork bere txokoa egiten zuen lan lehen, bizkarra bizkarraren aurka. Uztailetik honat, baina,

sinergiak batu eta Savanna studioa sortu dute.

Rodriguezek Leioan ikasi zituen Arte Ederrak. Karreraren hastapenean ezinikusi berezia zien marrazkiari eta pinturari eta ikasgai haietan espezializatuko ez zela esaten omen zion bere buruari. Bilboko egonaldia erabat aldatu zuen Rodriguez eta ikasketak bukatuta Bartzelonara egin zuen ihes, Ilustrazio graduondoa ikasteko aitzakiarekin. Ilustrazioaren munduan murgiltzeko baliabideak behar zituela sentitzen zuen oreretarrak, eta, dirudieenez Katalunia aldean eskuratu zituen beharrezkoak zituen zimenduak. Haur literatura izan ohi da ilustratzaileen merkatu nitxoa. Rodriguezen irudi «agre-

Orrialde honetan, uztailean Savanna Studioa osatu zutenetik egindako lanetako batzuk. Goian, Lupulu-ren irudia eta, behean, Giroki tabernaren kartak.

SAVANNA STUDIOA



siboak», ordea, ez dira ipuin goxo horietan kabitzen. Ez du penarik sentitzen, argi baitu berak gustukoa duena helduentzat marraztea dela, eta horren aldeko apustua egin du.

Ndungmandumek Ekuatore Gineakoa du aita, eta galiziarra ama. Robotikarekin eta pilotu izatearekin egiten zuen amets umetan, baina arte plastikoekiko zaletasunak graffitiaren mundura hurbildu zuen gaztetan. «Musika, dantza edo, oro har, arte urbanoaren inguruan mugimendu handia dago Vigon», dio herriminez. Paretako arteetatik diseinuaren mundura egin zuen salto, Ourensen aurrena, Bartzelonan ondoren. 33 urte ditu orain eta ia hamarkada bat darama lanbidean.

Proiektu pertsonal zirenak, elkarlanaren bidez, kolektibo bihurtu zituzten, Savanna Studioaren kimua izango zirela apenas konturatu gabe. Lupulu proiektua ipini dute mugarri. «Etxeko garagardoa egiteko jarraibideen liburua egin behar nuen –hasi da kontatzen Carlos–. Une bakoitza ilustratu nahi nuen, baina hori niretzat sekulako lana zen. Argazkiak atera eta dena digitalizatzea... Ondoan nuen Arrate eta, ilustrazioak egiteko sekulako erraztasuna duenez, arkatza hartu eta di-da egin zituen». Hitza hartu du Arratek, hain juxtu Savanna une horretan bertan jaio zela nabarmentzeko: «Orduan jakin genuen hori zela bidea. Norbera, bere kasa ari dela, iristen den lekuraino

iristen da, baina ondokoaren bultzadaz urrutirago iristen ahal da», dio kontent.

Norberaren lanak baztertu gabe, abentura berria abiatu dute elkarrekin. Hainbat eskari izan dituzte geroztik, Donostiako Alde Zaharreko Giroki tabernaren txartelak edota karta, kasu. Sormena, baina, esparru orotara zabaltzeko konpromiso irmoa dute eta eurentzat betegarriak diren lanak egiteko desioz dira. Alkandorak dira, adibidez, begi bistan dituzten hurrengo esperimientua eta familia osoa limurtu dute horretarako. Carlosen aitak oihalak ekarri ditu Afrikatik eta amak, jostuna izaki, jostorratza hartu du Carlos eta Arrateren agindupean. «Afrikako oihal ederrekin mendealdeko patroia duten alkandorak egin nahi ditugu», azaldu du Arratek itxaropentsu. Urtarrilean jarriko dituzte salgai eta dagoeneko eskariak izan dituztela baieztatu digute.

EUSKARRI ORO SORMEN ITURRI

Argi dute ez direla moda diseinatzaileak, eta izateko asmorik ere ez dute. Alkandorek arrakasta lortuko balute, baina, oihaletan sabana bera irudikatuko luketen estanpatu propioak egitea dute buruan. Euskarri guztiek eskaintzen diete sormenerako aukera Arrateri eta Carlosi. Izan ere, haiek dioten moduan, sormena «hil ala bizkoa» da eurentzat.

Izaerak bezala, lan egiteko modua ere zeharo desberdina dute Carlosek eta Arratek. Xehetasunak zaintzea atsegin du Carlosek eta patroiz geometrikoek eskaintzen duten zehaztasunaren zalea da. Eskua erabiltzen du Arratek, hura baino tresna pertsonalagorik aurkituko ez duela argi baitu. «Digitalki egiten dena oso antzekoa izan daiteke, baina eskuz egiten dena ez», dio bere aukeraren defentsan.

Savanna estudioari ere Arratek berezkoa duen goxotasuna kutsatu nahi dio, eta egin berri dituzten txarteletan nabari da hori. Eskuz tindatu dituzte estanpatuak eta helbidea eta izena zigilatu dituzte, guztiak tinda karga desberdinarekin, perfek-

